


Lanaldi partzialean eta aldizkako lan-kontratu finkoa duten pertsonen babesa hobetzeko akordioa



Abuztuaren 3an 11/2013 Errege Dekretuan agertzen da Tolédoko Ituneko markoaren barruan lortutako akordioa. CCOOren proposamenak erabakigarriak izan dira lanaldi partziala edo aldizkako lan kontratu finkoa duten pertsonen prestazio sozialak hobetzeko.

Araudia berria elkarrizketa sozialaren fruitu da eta, beste behin, langile klasearentzat eta euren eskubideen bermerako negoziazioan eta gizarte akordioetan oinarritutako erreformak tresna baliagarria direla baiezta da.

Akordioak martxoan Auzitegi Konstituzionalaren sententziak ezarritako berdintasun eta ez diskriminazio irizpideei erantzuten die. Sententzia horrek lanaldi partzialean lan egiten dutenen kotizazio arloko arauketa baliogabetzen du. Orain hitzartutako arau berriak kontratu mota hau duten 2,5 milioi pertsonen eskubide sozialak hobetuko dituen arauketa berria ezartzen du, eragin berezia izango du emakumeen-

gan kontratu mota honek beraiei eragiten baitie gehien.

Araudia berriak gabealdia eskatzen duten (eskutako gutxieneko kotizazio epealdia) Gizarte Segurantzako prestazio guztietarako sarbidea ahalbidetzen du lehen baino baldintza gutxiagorekin. Horrela, erraztasun handiagoarekin jaso ahal izango dira ezintasun iraunkorra, heriotza edo biziraupena, aldi bateko ezintasuna, amatasun eta aitatasuna edo Erretiro prestazioak.

Eragin berezia dauka akordio honek erretiroko prestazioaren aitorpenean hau baita gabealdi gehien eskatzen duena. Kasu honetan 15 urteko kotizazio gabealdi eskakizuna malgutu egiten da eta lanaldi partzialeko edo aldizkako lan-kontratu finkoko langile bakoitzak duen lanaldiaren ehunekora egokitutako gabealdia ezartzen da.

Lanaldi partzialean eta aldizkako

Ian-kontratu finkoa duten pertsonen babesia hobetzeko akordioa

Lanaldi partzialean zein lanaldi osoan kotizatutako denbora batuta pertsonak duen partzialitate globalako koefientea ezarriko da kontratu bakoitzaren lanaldiaren ehunekoa neurtuz, hortik Ian.bizitza osoari dagokion koefizientea ateraz.

Ehuneko horrek eskatutako kotizazio denbora (15 urte) murritzuko du, beharrezkoa denean, pentsio kontributiboaren eskubiderako sarbidea ahalbidetzeko aipatutako koefizientearen proportzio berean. Honek, eskatutako gabealdiaren murriketa eragingo du praktikan.

CCOOren proposamen eta akordioaren fruitu izan den arauketa berriak sententziaren aplikazio literala aurreko araudiaren arlorik positiboenak kentzea ekiditen du, kotizazio egun teoriko bakoitzagatik 1,5eko koeficiente biderkatzailea adibidez. Koeficiente hau kotizazio epeak hobetzeko eta horren kopuru osoa ezartzeko erabiliko da, une eta egoera bakoitzean kontuan hartzen den minimoen osagarria ere mantentzen da.

Beraz, kontuan hartu behar da akordio honek lehen kangoan uzten zituen pertsonentzako, orain

erretiro pentsioa edo bestelako prestazioen esku-bideen aitorpena eragiten duela. Horretan oinarrituta, lanaldi partziala egiaztatuta dutenek bere garaian eskatutako gutxieneko kotizazio epea ez egiaztatzeagatik ukatu egin zizkieten prestazioak orain arauketa berriarekin prestazio horiek eragin ditzakete.

Hauek badira edo izan badira zure kontratazio modalitateak eta CCOOn afiliatuta bazaude informa zaitez sindikatuan.

Parte hartze sindikalak CCOOren aldarrikapen historikoa ezartzea eragin du gizarte babesia hobetuz lanaldi partzialean lan egiten duen kolektibo zabal honentzat, kasu gehienetan lanaldi partzialeko kontratua ez baita pribilejioa lan merkatura sartzeko aukera bakarra baizik.

Horrelako gauzak CCOO bezalako sindikatu indartsuekin bakarrik lortzen da, horregatik da garrantzitsua aukera sindikal hau indartzea. Afilazio konpromisoa mantentzea eta zure lan esparruan zabaltea inoiz baino beharrezkoagoa da.

Arauketa berria gizarte elkarrizketa eta CCOOren proposamenen fruitu da.

Orain hitzartutako arau berriak kontratu mota hau duten 2,5 milioi pertsonen eskubide sozialak hobetuko dituen arauketa berria ezartzen du, eragin berezia izango du emakumeengan kontratu mota honek beraiei eragiten baitie gehien.

Eragin berezia dauka akordio honek erretiroagatiko prestazioaren aitorpenean hau baita gabealdi gehien eskatzen duena.



PENTSIORAKO SARBIDEERRAZAGOA Ianegun 1 = kotizatutako egun 1